

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak Valentziako Generalitateari lagako dio justizia kudeatzeko duen sistemaren erabilera

Nafarroako Gobernuak hartutako erabaki baten arabera, lankidetzahitzarmen bat sinatuko da administrazio horrekin; hain zuzen ere, era horretako laugarrena 2004an «Avantius» ezarri zenetik

Asteazkena, 2018.eko urriak 31

Nafarroako Gobernuak, gaurko bilkuran, Valentziako Generalitatearekin lankidetzahitzarmen bat sinatzeko baimena eman dio Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari María José Beaumonti, «Avantius» justizia kudeatzeko sistemaren erabilera lagatzeko.

Nafarroako Gobernuak sinatu duen era horretako laugarren hitzarmena da hau: 2009an, Kantabriari laga zaion kudeaketa-sistemaren erabilera; 2014an, Andorrako Printzerriari; eta 2017an, Aragoiko Gobernuari.

1999an justiziako transferentziak jaso ondoren, Nafarroak «Avantius» sortu zuen 2004an, eragile juridiko guztien arteko komunikazioa ahalbidetzeko sistema bat; sistema horri esker, prozesuak bizkortzen dira, eta informazioaren segurtasuna bermatzen.

«Avantius» sistema

Hiru aplikazioak osatzen dute sistema: «Avantius prozesu-kudeatzailea», organo judizialeko hainbat kideri espediente juridiko bakarrean esku hartzeko aukera ematen dien kudeaketa integraleko sistema; «Asigna», Abokatuaren Elkargoak, Prokuradoreen Elkargoak eta Laguntza Juridikoko Batzordeak darabilten doako laguntza juridikoko aplikazioa; eta «PSP-Profesionalen ataria», organo judizialei jakinarazpenak denbora errealean kontrolatzeko aukera ematen diena.

Kudeaketa prozesaleko sistema hau tartean diren eragile guztien elkarlanean oinarritzen da: epaile eta magistratuak, fiskaltza, Justizia Administrazioako abokatuak, eta kudeaketa, laguntza eta tramitazio gainerako langileak.

Hitzarmenaren arabera, Nafarroa izango da sistemaren inguruko jabetza intelektualeko eskubideen titularrak. Nafarroako Gobernuaren erakunde publiko instrumentalak, Tracasa Instrumental, S.L., eskainiko du aplikazioak ezartzeko laguntza teknikoak, eta hura arduratuko da, halaber, prebentzioko eta garapeneko mantentze-lanak egiteaz.

Nafarroak beharrezko material informatikoa (softwarea) entregatuko dio Valentziako Generalitateari, bere organo judizialean eta fiskaltzan ezarri eta erabil ditzan Nafarroako erakunde judizialek aplikatzen dituzten

funtzionalitateak. Hitzarmenaren arabera, bi gobernuek elkarri emango diote, inolako kosturik gabe, sistemetan egiten diren hobekuntza edo aldaketa guztien berri.